


“ZARAUZKO UDALAK SAKABANAKETA EZ BADU BABESTEN, SENIDEEI LAGUNDU EGIN BEHARKO LIEKE ODOLUSTE EKONOMIKO HORRI AURRE EGITEN”




1994ko Euskal Jaietan txosnan lanean

Batez ere gogoan norbait duen galdetuta, ez du zalantza askorik Mikel Larrañagak: “Maite ditudan guztiak ditut gogoan: senideak, neska-laguna, lagunak, eta kalean zintzoki borrokan ari diren gudariak”. Bestetik, zerbait nabarmentzekotan, “abertzale guztiak, nortasun agiri arrotza alde batera utzi eta Euskal Herriko Nortasun Agiria egitera animatu” nahi ditu: “EHNA egin eta egunerokotasunean erabiltzera animatu nahi zaituztet: banketxean, komertzioetan, eta nortasun agiria eskatzen duten leku guztietan”. Halaber, preso dagoen Joxe Mari Perez Diez zarauztarra ere bereziki gogoan du Larrañagak: “Azkenik, zementuzko infernu honetatik, Txuriri ordu erdiko besarkada handi eta fuertea bidali nahi diot lerro hauen bidez”.

rraraztea da. Horregatik, bisita eta gero, biluzarazi eta miatu egiten gaituzte. Ez da egia segurtasunagatik denik, umiliatzea eta azpigizakia zarela sinetsaraztea da beraien helburua. Nire ziegaren ondoan eduki zuten preso batek bi urte eta erdi egin zituen Guantanamon, eta hark esaten zuenez Frantziako espetxeak Europako Guantamoak dira. Gainerakoan, hemen, euskal herritarrek zein garen eta hemen zergatik gauden badakite gainerako presoek, eta errespetua digute. Zenbait presorekin harreman handia dugu, jende jatorra dago barruan, bihotz handiko jendea. Nik, pertsonalki, ongi daramat egunerokotasuna, egunak ez dit ematen aspertzeko paradarik, eta beti dut egitekoren bat: liburuak edota egunkariak irakurri, gutunak idatzi, sudokuak edota flexioak egin... Senideak eta lagunak, gainera, gainean daude behar dudan guztirako, eta horrek ez du preziorik. Beraiek gabe oso gogorra izango litzateke hemengo egonaldia.

•Badakigu astero irratiz entzuten dituzula Zarauzko lagunak...

Bai, Parisen dagoen Txalaparta irrati librearen bidez izaten da hori. Asteartetan izaten dira irratsaioak. Astelehene gauean Britainiako presoentzat, asteartean euskal herritarrentzat, asteazkenetan kortsikarrentzat... Irratira lagunak eta senideak deitzen dute, enkarguak emateko, kanturen bat eskaintzeko, poemaren bat irakurtzeko edota bertsoen batzuk abesteko, txisteren bat edota asteburuko parranda kontatzeko... Epaileak hainbat laguni bisitak ukatzen dizkienez, gutxienez lagunaren ahotsa entzuteko parada izaten dut irratiazen bidez.



1998an Belfasten lanean ari zela, Gerry Adamsekin

“SAKABANAKETA POLITIKA EUSKAL ESKUINAK SORTU ZUEN, EAJK, ZENBAIT HELBURUREKIN”

•Preso egoteaz gain, herritik urrun zaude. Sakabanaketak senide eta lagunak ere kondenatzen ditu ezinbestean...

Bere garaian sakabanaketa politika euskal eskuinak diseinatu zuen, EAJK, zenbait helbururekin. Batetik, preso ahalik eta bakartuen egon zedin, lagun eta senideekin komunikaziorik eduki gabe. Bestetik, senideak ekonomikoki itotzea, errepidean utzi behar duten dirutzarekin. Azkenik, senideak errepideetan hiltzeko. Sakabanaketak, isolamenduak, kondena luzeek, torturak, milioidun fidantzek, epaiketa fartsek, zabalduak auziek, Parot doktrinak, gaixo dauden presoak bahituta

edukitzeak... Horiek eta antzeko beste hainbat elementu osatzen duten mendeku politika hiltzaile honen agerian uzten dute ez garela preso arruntak, euskal preso politikoak baizik. Estatus hori ukatzen digute, baina praktikan preso politikoak garela erakusten duten neurriak ezartzen dizkigute. Horrekin, gainera, Euskal Herrian borroka armatua gainditzen duen gatazka politiko bat dagoela ere agerian uzten dute. Epaile arrotzek kondenatu ahal izango gaituzte, baina ez epaitu. Bestalde, sakabanaketaren tentakuluak leku askotara iristen dira. Esaterako, Zarauzko Udalak uko egiten dio senideei laguntzak emateari. Hauek, ordea, argi eta garbi dute preso bisitatzera Pariseraio zein Txinaraio joan behar bada, joan egingo direla, asteroko bidaietan dirutza izugarria utzi arren. Afera da Zarauzko Udalak preso sakabanaketa hiltzailea babesten duen ala ez. Babesten badu, normala da senideei laguntza ukatzea. Aldiz, sakabanaketa ez badu babesten, senideei lagundu egin beharko lieke odoluste ekonomiko horri aurre egiten.